

7. gidoia: Min egiten duten hitzak

Gidoiaren laburpena:

Iseka egiteko asmoa zuen fotomuntatze bat biralizatu ondoren, Naroak antsietate-krisi bat izan duela jakin dute Andonik eta bere lagun-taldeak. Jazarpenaren atzean nor dagoen ikertzea erabakiko dute. Horretarako, Izar artefaktua erabiliko dute ikaskideen pentsamenduak eta ezkutuko ekintzak ezagutzeko. Ikertu ondoren, jakingo dute Lander eta bere lagunak ibili direla amarrua prestatzen eta zabaltzen, eta, hortik abiatuta, azken gogoeta egingo dute hitzezko jazarpenaren ondorioei eta eskola-ingurunean enpatiak eta errespetuak duten garrantziari buruz.

Helburu pedagogikoa:

Gidoi honen helburu pedagogikoa da ikasleak hitzezko jazarpenaren eta ziberjazarpenaren ondorio larriez kontzientziatzea. Narratibaren bidez, enpatia, errespetua eta erantzukizuna sustatu nahi dira sare sozialen erabileran. Ikasleek portaera kaltegarriak identifikatzen, beren ekintzen inpaktuari buruz hausnartzen eta biktimei laguntzeko nahiz etorkizuneko jazarpen-egoerak prebenitzeko neurriak hartzen ikasiko dute. Istorioak azpimarratu nahi du eskola-giro seguru eta inklusiboa sortzeari begira komunitateak eta elkarri babesa emateak duten garrantzia.

Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
E00	Andoni partida bat jokatzen ari da	Ikaskidea: Partida ona, Andoni... Hurrengoan egurra emango dizuegu!

	<p>saskibaloï-kantxan. Amaieran, lagun-taldea du atean zain.</p>	<p>Andoni: Jarraitu amesten, kar-kar-kar. Aldagelara noa, dutxatzera.</p> <p>(Taldea iristen da)</p> <p>Andoni: E, zer gertatzen zaizue? A zer nolako aurpegiak dauzkazuen!</p> <p>Ainara: Ez al duzu berria jakin? Naroa ospitalean dago. Antsietate-krisi bat izan du!</p> <p>Andoni: Ezin dut sinetsi... Naroak? Baina zergatik?</p> <p>Gorane: Ikusi hau... Norbaitek Naroaren fotomuntatze bat kargatu du txat batean, eta biral egin da. Iruzkin krudelak argitaratzen eta isekazko DMak bidaltzen aritu zaizkio etengabe.</p> <p>Andoni: Uf, jendea pasatu egin da... Eta ez al dakigu nor izan den?</p> <p>Eloi: Kontu faltsu bat erabili dute, baina bere gelako norbait izan dela uste dugu.</p> <p>Ainara: Bilera bat izango da entzunaretoan; sareetako jazarpenari buruzko hitzaldi bat emango digute.</p> <p>Andoni: Dutxa hartu eta berehala joango gara. Izar aldagelan daukat; argazkia nork kargatu duen jakiteko balio diezaguke.</p>
<p>E01 – Entzunaretoaren erdigunea</p>	<p>Entzunaretoan, irakasle batzuk agertokian daude, eta ikasle asko eserita edo adi-adi.</p>	<p>Gorane: Aplikazio bat daukat Naroaren ikaskideen zerrendarekin eta argazkiaren txata iruzkinekin.</p> <p>Andoni: Goazen haiekin hitz egitera. Lortzen ditugun aztarnekin, errurik ez dutenak baztertzen joango gara. Geratzen dena izango da erantzulea.</p>

	<p>Eszena 360 panoramikan erakusten da, bi ikuspegitan banatuta.</p>	<p>Ainara: Ziur nago Izar erabiliz hainbat gauza deskubritu ahal izango ditugula. Goazen!</p>
<p>E02 – Lander</p>	<p>Lander pertsonaiaren testuak</p>	<p>Lander: Kaixo! Naroari gertatutakoak garbi erakusten du sare sozialak zein arriskutsuak izan daitezkeen. Partekatzen duzunaren arabera...</p> <p>Andoni: Nork igo ote zuen argazkia?</p> <p>Lander: Uf, ideiarik ez... Baina Kaia izan dela esango nuke. Naroa ez du oso gogoko.</p> <p>DARKSIDE: Espero dut inork ez galdetzea ezer Naroari buruz txantxetan aritu ginen txat pribatuaren inguruan.</p> <p>Bigarren elkarrizketa</p> <p>Ainara: Aizu, zer dakizu Naroari buruz txantxetan ibili ziren txat pribatu bati buruz?</p> <p>Lander: Nik... Egia esan, lotsa ematen dit esateak, baina nik ere parte hartu nuen. Txantxetan ari ginen eta berari buruzko gauza batzuk komentatu genituen.</p> <p>Eloi: Argazkia zintzilikatu zuen pertsona talde horretan egon al liteke?</p> <p>Lander: Ez dakit... Segur aski. Txataren kopia bat bidaliko dizuet; lagungarria izango zaizue beharbada.</p>

E03 – Aroa	Aroa pertsonaiaren testuak	<p>Gorane: Kaixo, zer iruditu zaizu Naroari gertatutakoa?</p> <p>Aroa: Oso gaizki sentitzen naiz! Txatean iruzkin bat ipini nuen, garrantzirik gabeko txantxa bat zela pentsatuz. Ez nuen uste hainbesteko kaltea egingo zionik!</p> <p>Ainara: Ikaskide bati iseka egitea eta iseka biral egitea ez da inolako txantxa. Batzuetan ahaztu egiten zaigu nick bakoitzaren atzean pertsonak daudela.</p> <p>Aroa: Badakit... Batzuetan ez dugu gauza horietan pentsatzen. Naroa nire laguna da; itzultzen denean, berarekin hitz egingo dut eta barkamena eskatuko diot.</p>
E04 - Edurne	Edurne pertsonaiaren testuak	<p>Eloi: Zein gogorra Naroari gertatu zaiona, ezta?</p> <p>Edurne: Bai, kontatu didate. Nik ez ditut sare sozialak erabiltzen. Gero esango dute arraroa naizela, baina beldurra ematen dit edozein gauza igotzeak eta jendeak ni zanpatzeak.</p> <p>Gorane: Ulertzen dut; sare sozialak nahiko krudelak izan daitezke batzuetan.</p> <p>Edurne: Iaz, hondartzan ateratako argazki batzuk igo nituen, eta askok kritikatu egin ninduten nire fisikoagatik. Zuk ere bai! Harrezkero, ez daukat ezer partekatzeko asmorik.</p> <p>Gorane: (Isilik geratzen da)</p> <p>DARKSIDE: Gauzak sare sozialetara igotzea, Gorane bezain faltsua izateko? Hobe ez.</p>

E05	Ibai pertsonaiaren testuak	<p>Andoni: Naroaren txatean idatzi duzun iruzkina ikusi dut. Ondo iruditzen al zaizu?</p> <p>Ibai: Txantxetan ari nintzen; ez da hainbesterako. Batzuek ez daukate umore-senik!</p> <p>Ainara (nahigabetuta): Ba al dakizu erruaren proiektzioa zer den? Beharbada zerbait irakurri beharko zenuke horren inguruan.</p>
E06	Izaskun pertsonaiaren testuak	<p>Gorane: Izaskun, ondo al zaude?</p> <p>Izaskun: Ene... Aroarekin txata irakurtzen aritu nintzen eta algaraka ibili ginen gaiarekin... Orain errudun sentitzen naiz. Naroa oso neska jatorra da; ez du iskanbila hau merezi.</p> <p>Gorane: Batzuetan ez gara konturatzen gure iruzkinek gainerakoei nolako kaltea eragiten dieten, ezta?</p> <p>Izaskun: Egia da, bai.</p> <p>DARKSIDE: Aroa atsekabetuta dago egin zuenagatik. Espero dut Naroarekin horren inguruan hitz egin ahal izango duela.</p>
E07	Joakimen testuak	<p>Andoni: Joakim, zer pentsatzen duzu Naroarekin gertatu denaz?</p> <p>Joakim: Izugarria da. Joritzekin nengoan informatika-eskolan argazkia igo zutenean. Ez zait batere gustatzen gertatutakoa.</p> <p>Gorane: Ezer susmagarririk ikusi al zenuen?</p>

		<p>Joakim: Egia esan, ez; dena den, jokabide arraroa izaten ari zen Joritz. Naroa gustatzen zaio, eta deseroso sentitu zen horrekin guztiarekin.</p> <p>DARKSIDE: Espero dut inork ez pentsatzea honekin zerikusia daukadala.</p>
E08	Joritzen testuak	<p>Ainara: Joritz, zure ustez nork igo zuen argazkia?</p> <p>Joritz: Ez nago ziur. Leire eta Lander oso jostalari zebiltzan argazkia argitaratu baino lehen.</p> <p>Eloi: Haietakoren bat izan zela uste duzu?</p> <p>Joritz: Izan liteke. Landerrek txantxa astunak egiten ditu beti.</p> <p>DARKSIDE: Ez dut nahi inork jakiterik Naroa gustatzen zaidala. Ez dut nahi berak jakiterik.</p>
E09	Laiaren testuak	<p>Andoni: Laia, ikusi al zenuen Naroaren argitalpena?</p> <p>Laia: Bai, Kaiarekin nengoen eta elkarrekin ikusi genuen. Eztabaidatzen hasi ginen, Kaiak errua Naroari bota zion-eta.</p> <p>Gorane: Ba al dakizu nor izan daitekeen argazkia igo zuena?</p> <p>Laia: Ez daukat ideiarik, baina informatika-eskolan zegoen norbaitek egin zuela esango nuke. Kaia ez zegoen txatean.</p> <p>DARKSIDE: Espero dut Kaiak ez nauela honengatik arazoetan sartuko.</p>

E10	Leireren testuak	<p>Ainara: Leire, ezer ba al dakizu Naroaren argazkiari buruz?</p> <p>Leire: Muntatzen lagundu nuen, baina ez nuen partekatu. Oso nahigabetuta nago kontu hori dela-eta.</p> <p>Eloi: Zergatik egin zenuen?</p> <p>Leire: Gaizki atera zen txantxa bat izan zen. Ez nuen hain urrun iristerik nahi.</p> <p>DARKSIDE: Espero dut inork ez didala errua zuzenean niri botako. Nik ez nuen kalterik egin nahi.</p>
E11	Sarriren testuak	<p>Andoni: Kaixo, Sarri. Zer moduz?</p> <p>Sarri: Tira... A zer nolako iskanbila sortu den, ezta?</p> <p>Andoni: Naroa gaixoa; ez du halakorik merezi. Zure ustez, nork igo du argazkia?</p> <p>Sarri: Uf, ezta ideiarik ere! Baina baten batek informatika-eskolan igo zuela esan didate.</p> <p>DARKSIDE: Oxala esaten ari naizena baino gehiago dakidala jakingo ez balute.</p>
E12	Kaiaren testuak	<p>Gorane: Kaia, ezer ba al dakizu Naroaren argazkiari buruz?</p> <p>Kaia: Ez, baina Laiarekin batera ikusi nuen argitalpena, eta eztabaidan hasi ginen, errua Naroari bota niolako.</p> <p>Ainara: Argazkia nork igo zuen ba al dakizu?</p>

		<p>Kaia: Ez, baina bere gelakideren bat izan zela uste dut.</p> <p>DARKSIDE:</p> <p>[KAIA] Ez naiz Naroarekin ondo moldatzen, baina ez nuen hau gertatzerik nahi.</p>
E13	Unairen testuak	<p>[Andoni] Kaixo! Aizu, Naroaren argazkiari buruz ezer ba al dakizu?</p> <p>[Unai] Dakidana da batzuek ez daukatela umore-senik. Eta jende arraroa dagoela, Edurne bezalakoa, sare sozialak erabili ere egiten ez dituen.</p> <p>[Ainara] Ez zenuen ba argazkia zuk igoko, ezta?</p> <p>[Unai] Neuk igo izan banu, ez nuen kontu anonimo bat erabiliko. Hori ziur!</p>
E14	Naroari buruzko txantxak agertzen ziren txat pribatuaren testuak.	<p>[Lander] Ikusi al duzue gaur Naroa? A zer piura daukan.</p> <p>[Izaskun] Gogoko dut Naroa, baina janzkera-kontuetan...</p> <p>[Unai] Merkealdian ibiliko zen erosketak egiten, kar-kar-kar!</p> <p>[Joakim] Ez zaitetze pasatu; bakoitzak bere estiloa dauka.</p> <p>[Ibai] Baten batek fotomuntatze bat egin eta txatera igo lezake; barregarria izango litzateke.</p> <p>[Leire] Zerbait bururatzen ari zait!</p>
E15	Naroaren argazkia partekatu zuen txat publikoaren testuak.	<p>[1. erabiltzailea] Hori da hori estiloa, Naroa, kar-kar-kar!</p> <p>[2. erabiltzailea] Auzo-lotsa pixka bat ematen du, ez?</p> <p>[3. erabiltzailea] Kar-kar-kar-kar-kar, zu bai modeloa!</p> <p>[4. erabiltzailea] Horrela ibiltzeko, etxean geratzea hobe.</p>

E16	<p>Kuadrillak Landerrekin hitz egiten du eta mutilak egia aitortzen du.</p> <p>Naroa ikastetxera itzultzen da eta ikaskideek babesa ematen diote. Sareetan iseka egiten zioten ikaskideek eta Landerrek barkamena eskatzen diote, lotsatuta.</p>	<p>[Andoni] Lander, badakigu zuk igo zenuela argazkia. Zergatik egin zenuen hori?</p> <p>[Lander] Nik zer dakit. Txantxetan genbiltzan eta ez ez genuen pentsatu ere egin hain gaizki amaituko zenik!</p> <p>[Eloi] Ez zait txantxetako iruditzen mundu osoa norbaiti iseka egiten ibiltzea.</p> <p>[Lander] Badakit... eta oraintxe bertan zeharo nahigabetuta nago. Ez dut berriro horrelakorik egingo. Naroa itzuli bezain laster, barkamena eskatuko diot.</p> <p>[Ainara (Instagram)] Naroa oneratu egin da eta ikastetxera itzuli da. Denon artean babestu egin dugu, eta Landerrek eta argitalpenean iseka egin zioten ikaskide guztiek barkamena eskatu diote.</p> <p>Hitzek kolpeek baino min handiagoa egin dezakete. Uste dut horrelako kasuek pentsarazten digutela besteek gu nola tratatzea gustatuko litzaigukeen eta guk besteak nola tratatu beharko genituzkeen. Hurrengo zuzenekoan ikusiko dugu elkar. Zintzoak izan!</p>
-----	--	--